




LIBURUA

Danbor hotsa atzera ere



ANTOLOGIA

EGILEA: CHRISTOPHER OKIGBO
ITZULTZAILEA: KARMEN
IRIZAR SEGUROLA

MUNDUKO POESIA KAIERAK,
SUSA, 2021

IGOR ESTANKONA

Unibertsitate garaia, Bilboko Zabalgunea, sukurtsal artean, bigarren eskuko liburutegia baten argi ahula. Bazter batean bazterrekoenak: *Afrikar poeta garaikideak* (gaztelaraz, Biblioteca Jucar). Niretzat, urte askoan, itsasargi baten antzekoa. Agostinho Neto, Noemia de Souza, Wole Soyinka, David Diop, Jacques Rabemananjara... eta danbor baten durunda beste piztia guztien oihuminen gainetik: Christopher Ifekandu Okigbo. 1932an jaio zen Ojoton (Nigeria), Igbo eskualdean. Ez Nigeriarik, ez Kamerunik, ez Beninik, ez ezer ez zegokeen kolonizaziorik egon izan ez balitz (Euskal Autonomia Erkidegorik ere ez, esan dezagun bidena-bar), eta hori dela eta bere herria ez da mapa politikoetakoa, ezpada oihan, leku sakratu eta ur korronteetakoa: “Ama

Idoto, biluzik nago/ zure aurrean zutik/ zure presentzia urtsuaren aurrean,/ ni, etxekalte hau// olio-leka zuhaitz baten kontra etzanda/ zure elezharrean alderrai”. Ez alferrik, Christopher Okigbo 1967an hil zuten, Biafraren aldeko borrokan, Nigeriaren kontrako gerran soldadu ari zela.

Karmen Irizar Segurolak itzulpen soilak egin du poetarena. Zailena egin du, alegia; Okigboren indar telurikoa ekarri du euskarara modu zuzen eta egiazkoan. Berriro diot: aspaldiko irakurraldiak berdetu zaizkit, Afrikako poesiaren purutasuna eta zeruen infinitua baitakartza liburu honek, eta Jainkoak artagatu egiten ditu, oroitaraziz gu ez garela deus urtaroen eta landareen izerdiaren aldean. Guk, animalioak, luma dugu idazteko. Christopher Okigbok gerizpee-

kin hitz egiteko danborra asmatu zuen, nahiz eta ingelesez egin (igboera ere bai, arean): “Txori magikoek tximistargiaren miraria lumetan...”.

Eurozentrismoaren eta sustraien artean harrapatua, Okigbo Afrika egiten ari den bide luzearen beste adibide bat da. *Elegy for Alto* (“Altorentzat eresia”) izan zen bere hil-buruko testamentua, eta oraindik kantatzen dute bere herrian: “Hemen dira politikariak generadoreen, morteroen burdinazko dantza honetan...”.

Bigarren eskuko liburutegian beraz, zerk eroan ote ninduen bazter hartara, bazterrekoen txokora? Oraindik azken berba esan ez duen Afrikako kontinenteko ahotsak izango ziren beharbada. Edo osterantzean deltako igel handiak, ai! ei!, ilargi-min. ●